- b) Pertsonaleko zuzendaria.
- c) Kudekaketa ekonomikoko zuzendaria
- d) Pertsonalaren ordezkariak proposatuta izendatzen den profesional bat, ez bada proposamenik egiten, zuzendari gerenteak izendatuko du.
- e) Lanbide-taldeko/tipologiako profesional bi, zerbitzu-erakundeko profesionalen arteko zuzendari gerenteak izendatuak.
- f) Ebaluazioa jasoko duen pertsonaren tipologia eta/edo espezialitateko kanpoko profesional bat, Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzak proposatutako hirukotetik zerbitzu-erakundeko zuzendaritzak izendatua, III. eta IV. mailak ebaluatzeko.
- g) Giza baliabideetako teknikaria, Batzordeko idazkaria izango dena eta bileretan hitza eta botoa izango dituen.

3.- Batzordearen osiera zerbitzu erakunde bakoitzean dauden egitura eta baliabideetara egokitu ahal izango da, nolahi ere batzordeko profesionalen ordezkariak bermatuko delarik artikuluko honetan ezarritako proportzioan.

4.- Zerbitzu erakundeko Zuzendaritza-gerentziako batzorde hori hautatuko du ebaluazioak hasi aurretik eta haren osiera iragarki-oholetan eta Osakidetzaren Intraneten argitaratuko da.

5.- Batzordeak xedatu ahal izango du bere kideei laguntzen dieten aholkulari bereziak egotea. Aholkulari horiek batzordeko kideei eskatutako titulazio-baldintza berberak bete beharko dituzte eta beren espezialitate teknikoari lotutako aldeak ebaluatzen lagundu baino ez dute egingo. Era berean, beren jardueraren arduraren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27. artikulura zehaztutako arauak lotu beharko zaie.

**10. artikulua.-** Garapen profesionalen sistemaren jarraipen batzordea.

**Artículo 9.-** Comité de evaluación de organización de servicios.

1.- La evaluación se llevará a cabo por un Comité de evaluación específico, creado en cada organización de servicios, cuyos miembros deberán estar en posesión de titulación de igual o de superior nivel académico que el profesional a evaluar y, en todo caso, el personal profesional integrante del Comité deberá estar en posesión de titulación de profesión sanitaria del mismo nivel que la del evaluado.

2.- El Comité de evaluación será designado por el/la titular de la Dirección-Gerencia de la Organización de servicios, quien asumirá la presidencia del mismo, y estará constituido además por los siguientes miembros:

- a) Director/a de Enfermería.
- b) Director/a de Personal.
- c) Director/a de Gestión Económica.
- d) Un profesional designado a propuesta de la representación del Personal, en el caso de que no se realice propuesta éste será designado por el Director Gerente.
- e) Dos profesionales del grupo profesional/tipología, designados por el Director Gerente de entre los profesionales de la organización de servicios.
- f) Un profesional externo de la tipología y/o especialidad del evaluado, designado por la Dirección de la Organización de Servicios de la terna propuesta por la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza, para la evaluación de los niveles III y IV.
- g) Un técnico de recursos humanos, quien asumirá la función de Secretario, con voz y voto.

3.- La composición del Comité podrá ser adecuada a la estructura y recursos existentes en cada organización de servicios, garantizando en todo caso la representación de los profesionales de la misma, en la proporción prevista en este artículo.

4.- Este Comité será designado por la Dirección Gerencia de la Organización de servicios con anterioridad al inicio de las evaluaciones, publicándose su composición en los tablones de anuncios y en la Intranet corporativa de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

5.- El Comité podrá disponer la incorporación de asesores especiales que colaboren con sus miembros. Dichos asesores deberán reunir el mismo requisito de titulación exigido a los miembros del Comité y se limitarán a la colaboración en la validación de la evaluación de los aspectos vinculados a sus especialidades técnicas. Igualmente, deberán ajustar su actuación a las reglas determinadas en los artículos 22 a 27 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Artículo 10.-** Comité corporativo de seguimiento del sistema de desarrollo profesional.

1.- Aholku batzorde bat eratuko da, garapen profesionalen sistemaren ezarpena sustatu eta laguntzeko helburua izango duena eta ondoko eginkizunak burutuko dituena:

a) Prozesuaren ildo nagusiak zehaztu eta bere homogeneotasuna zaindu.

b) Ereduaren diseinua zehaztu eta baremoak eguneratu.

c) Deialdi bakoitzaren prozesua, abiaraztea eta planifikazioa zehaztea.

2.- Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiko titularra batzordeburua izango da eta beste zazpi batzordekide gehiago izango dira, kide horietako bat Batzordeko idazkaria izanik. Era berean, ordezkoko kopuru bera ere izendatuko da. Kideak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez hautatu eta kargutik kenduko dira, ebazpen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argiratu direlarik. Batzordeak xedatu ahal izango du bere kideei laguntzen dieten aholkulari bereziak egotea. Halaber, beren jarduera urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikulutik 27. artikulura zehaztutako arauak lotu beharko zaie.

**11. artikulua.**- Maila bakoitzean kokatzeko prozedura.

Karreran sartu eta maila bakoitzean kokatzeko, hurrengo prozedurari jarraituko zaio:

1.- Ebaluatzeko prozesuaren deialdia.

Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren bidez ebaluatzeko prozesua deituko da urtero, eta jendaurrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

Deialdi bakoitzak gutxienez zehaztu beharko ditu, ebaluatzeko prozesuari lotutako beste alde batzuen artean, bai merituek eskatu eta egiaztatzeko epeak eta sistema, bai puntuazio irizpideak.

2.- Ebaluazioa.

Ebaluatzeko prozesuan haiek hartuko dute parte: ebaluatu beharreko profesionalak, profesional horiek zerbitzuak egiten dituzten zerbitzu edo unitateko arduraduna eta zerbitzu-erakundeak ondore horretarako eratutako Ebaluazio Batzordea.

a) Ebaluatu beharreko profesionalak bere eskabidea aurkeztu beharko du Osakidetzak horretarako antolatutako programa informatikoan eta bertan sartu beharko ditu faktore hauei buruzko datuak: etengabeko prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena eta ikerkuntza.

b) Eremu, zerbitzu edo unitateko arduradunak ebaluazioa jasotzen duten pertsonen jarduera, gaitasun eta

1.- Se constituirá un Comité corporativo de carácter consultivo que tendrá como finalidad impulsar y favorecer la implantación del sistema de desarrollo profesional y que ejercerá las siguientes funciones:

a) Marcar las líneas generales del proceso y velar por su homogeneidad.

b) Definir el diseño del modelo y actualizar los baremos.

c) Definir el proceso, lanzamiento y planificación de cada convocatoria.

2.- El Comité corporativo estará integrado por el titular de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, quien asumirá la presidencia del mismo, y estará constituido por siete vocales, uno de los cuales actuará de Secretario, designándose idéntico número de suplentes. Los vocales serán designados y cesados por resolución de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, publicándose éstas en el Boletín Oficial del País Vasco. El Comité podrá disponer la incorporación de asesores especiales que colaboren con sus miembros. Igualmente, deberán ajustar su actuación a las reglas determinadas en los artículos 22 a 27 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, modificada por Ley 4/1999, de 13 de enero.

**Artículo 11.**- Procedimiento de encuadramiento en cada nivel.

La incorporación a la carrera y el encuadramiento en cada nivel se efectuará de acuerdo con el siguiente procedimiento:

1.- Convocatoria del proceso de evaluación.

Con carácter anual, mediante resolución de la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud se efectuará la convocatoria del proceso de evaluación, la cual se hará pública a través del Boletín Oficial del País Vasco.

Cada convocatoria deberá determinar, como mínimo, entre otros aspectos relacionados con el proceso de evaluación, los plazos y sistema para solicitar y acreditar los méritos y los criterios de puntuación.

2.- Evaluación.

En el proceso de evaluación participarán los profesionales a evaluar, el responsable del servicio o unidad donde estos presten servicios, y el Comité de evaluación de la organización de servicios constituido al efecto.

a) El/la profesional a evaluar presentará su solicitud en el programa informático habilitado al efecto por Osakidetza-Servicio vasco de salud, incluyendo en el mismo los datos relativos a los factores de formación continuada, docencia y difusión del conocimiento e investigación así como aquella otra información que considere pertinente para la correcta evaluación.

b) El responsable del área, servicio o unidad tiene la función de evaluar las competencias relacionadas espe-

betetze profesionalari berariaz lotutako gaitasunak ebaluatu beharko ditu, baita erakundearekiko inplikazio eta konpromisoari buruzkoak ere, eta horren emaitzak azken ebaluazioari gehituko dizkio. Bere unitate edo zerbitzuko profesional guztien ebaluazioa amaitu ondoren, bere emaitzak aurkeztuko ditu zerbitzu erakundeko ebaluazio batzordearen aurrean.

c) Zerbitzu erakundeko ebaluazio batzordeak prozesuan zehar sortu diren agiri guztiak jaso eta aztertuko ditu, hau da, zerbitzu edo unitateko arduradunek egingdako ebaluazioak zein ebaluazioa jasotzen duten profesionalen autoebaluazioa. Emaitzak aztertu ondoren ebaluazio zabalagoa egitea komenigarritzat jotzen badu, ebaluazioa jasotzen duen pertsonaren ebaluazio osagarria eskatu ahal izango die haren zerbitzu edo unitateko profesionali, edo hala denean, garapen profesionaleko sistemari sartuta dagoen beste zerbitzu erakunde bateko espezialitate bereko profesionali. Bere egitekoa amaitu ondoren, egiaztatutako mailen behin-behineko zerrenda egin eta onetsiko du, eta zerrenda hori bidaliko dio Osakidetzari.

### 3.- Ebazpena eta ebaluazioaren ondorioak.

Ebaluazio ezberdinak jaso ondoren, Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak ebaluazioak aurkeztuko ditu batzordearen aurrean, deialdian ezarritako ebaluatze irizpideekin bat datozen aztertzeko. Batzorde horrek txostena egin ondoren, Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzak hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko aginduko du ebazpenaren bidez. Horren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren aurrean hilabeteko epean, txostena argitaratu eta bihar munetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikulua eta hurrengo araberak.

Osakidetza Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako errekurtsoak ebatzi, eta eskuratutako mailak behin betiko esleituko ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpenaren bidez. Aipatutako ebazpenak administrazio-bidea amaituko du.

### 4.- Ebaluazioaren ondorioak.

Dagokion mailan kokatetik ondorioztatutako ondorio ekonomikoak eskabidea ebatzi eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dira, Dekretu honek beren-beregi bestelakoa ezartzen duen kasuetan izan ezik. Ebaluazio negatiboa jasotzekotan, profesionalak beste ebaluazio bat eskatu ahal izango du azken ebaluazioa egin denetik bi urte igaro ondoren, mailen behin betiko esleipenari buruzko ebazpena ematen denetik zenbatuta.

**12. artikulua.**- Garapen profesionaleko sistemaren ordainsari-ondorioak.

cíficamente con los ámbitos de actividad, competencia y desempeño profesional de los evaluados, así como las relativas a implicación y compromiso con la organización, incorporando los resultados a la evaluación final. Una vez finalizada la evaluación del conjunto del personal de su unidad o servicio, presentará sus resultados ante el Comité de evaluación de la organización de servicios.

c) El Comité de evaluación de la organización de servicios recibirá y analizará toda la documentación generada a lo largo del proceso, proveniente de las evaluaciones realizadas por los responsables de servicio o unidad, más la información facilitada por los profesionales evaluados. Si, a la vista de los resultados, considerara conveniente ampliar la evaluación, podrá recabar una evaluación complementaria del evaluado a profesionales de su servicio o unidad, o, en su caso, de otra organización de servicios integrados en el sistema de desarrollo profesional. Finalizada su actuación, elaborará y aprobará la relación provisional de los niveles acreditados, remitiendo la misma a la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

### 3.- Resolución de la evaluación.

Una vez recibidas las diferentes evaluaciones, la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud presentará las mismas ante el Comité corporativo para el análisis de su coherencia respecto a los criterios de evaluación previstos en la convocatoria. Una vez emitido informe por dicho Comité, la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud ordenará su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco mediante resolución, contra la que podrá interponerse recurso de alzada ante la Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

La Dirección General de Osakidetza-Servicio vasco de salud procederá a resolver los recursos interpuestos y a la asignación definitiva de los niveles alcanzados, mediante resolución que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco. Dicha resolución pondrá fin a la vía administrativa.

### 4.- Efectos de la Evaluación.

Los efectos económicos del encuadramiento en el nivel correspondiente se producirán a partir del 1 de enero del año siguiente al de la resolución de la solicitud, salvo en aquellos casos en los que expresamente se establezca lo contrario en el presente Decreto. En caso de evaluación negativa, el profesional podrá solicitar una nueva evaluación transcurridos dos años desde ésta, contados a partir de la resolución de asignación definitiva de niveles.

**Artículo 12.-** Efectos retributivos del sistema de desarrollo profesional.

1.- Garapen profesionalaren maila aintzatesteak lanpostuaren osagarria jasotzea ekarriko du. Osagarri horren bidez, norberari dagokion garapen-mailan helburu asistentzialak etengabe betetzea sustatu nahi da, urteko hurrengo zenbatekoen arabera:

## A taldea:

|            |         |
|------------|---------|
| I. maila   | 2.210 € |
| II. maila  | 4.427 € |
| III. maila | 5.903 € |
| IV. maila  | 8.113 € |

## B taldea:

|            |         |
|------------|---------|
| I. maila   | 1.775 € |
| II. maila  | 3.555 € |
| III. maila | 4.740 € |
| IV. maila  | 6.515 € |

## C taldea:

|            |         |
|------------|---------|
| I. maila   | 1.300 € |
| II. maila  | 1.800 € |
| III. maila | 2.500 € |
| IV. maila  | 3.500 € |

## D taldea:

|            |         |
|------------|---------|
| I. maila   | 1.100 € |
| II. maila  | 1.500 € |
| III. maila | 2.200 € |
| IV. maila  | 3.200 € |

## E taldea:

|            |         |
|------------|---------|
| I. maila   | 900 €   |
| II. maila  | 1.200 € |
| III. maila | 1.750 € |
| IV. maila  | 2.200 € |

2.- Garapen profesionala aplikatzen diren ordainsariak karrera-osagarriaren barruan kokatuko dira, Osasun-zerbituetako Pertsonal Estatutarioaren Estatutu Markoari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 43.2.e) artikulua horrela arautzen duelako. Ordainsari horiek aldizka egokitu eta gaurkotuko dira, aurrekontuetako urteko legeek eta ondore horietarako diren beste legezko xedapen batzuek ezartzen dutenarekin bat etorritik.

Aitortutako azken mailari dagokion zenbatekoa baino ezin izango da jaso.

1.- El reconocimiento del nivel de desarrollo profesional conllevará la percepción del complemento de carrera, destinado a incentivar el grado de cumplimiento de los objetivos asistenciales continuado en el tiempo en el marco del respectivo nivel de desarrollo, de acuerdo con los siguientes importes anuales:

## Grupo A:

|           |         |
|-----------|---------|
| Nivel I   | 2.210 € |
| Nivel II  | 4.427 € |
| Nivel III | 5.903 € |
| Nivel IV  | 8.113 € |

## Grupo B:

|           |         |
|-----------|---------|
| Nivel I   | 1.775 € |
| Nivel II  | 3.555 € |
| Nivel III | 4.740 € |
| Nivel IV  | 6.515 € |

## Grupo C:

|           |         |
|-----------|---------|
| Nivel I   | 1.300 € |
| Nivel II  | 1.800 € |
| Nivel III | 2.500 € |
| Nivel IV  | 3.500 € |

## Grupo D:

|           |         |
|-----------|---------|
| Nivel I   | 1.100 € |
| Nivel II  | 1.500 € |
| Nivel III | 2.200 € |
| Nivel IV  | 3.200 € |

## Grupo E:

|           |         |
|-----------|---------|
| Nivel I   | 900 €   |
| Nivel II  | 1.200 € |
| Nivel III | 1.750 € |
| Nivel IV  | 2.200 € |

2.- Las retribuciones derivadas de la aplicación del desarrollo profesional quedan encuadradas en el complemento de carrera regulado en el artículo 43.2.e) de la Ley 55/2003, de 16 de diciembre, del Estatuto Marco del personal estatutario de los servicios de salud. Estas retribuciones se adecuarán y actualizarán periódicamente de acuerdo con lo que dispongan las Leyes anuales de Presupuestos u otras disposiciones legales al efecto.

Sólo podrá percibirse el importe correspondiente al último nivel reconocido.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.-** Kudeaketa lanpostuak burutzearen eta garapen profesionaleko ereduaren arteko bateragarritasuna.

Pertsona taldeen edo arlo espezifikoaren gaineko erantzukizuna dakarten kudeaketa lanpostuak betetzen dituzten profesionalek, ebaluazioa eskatu ahal izango dute, aipatutako lanpostuak betetzen dituzten bitartean, eskura dezaketena maila egiaztatzeko asmoz. Ondoko zehazpenak egongo dira:

a) Beren zerbitzu edo unitateko gainerako profesionalentzat ere ebaluagarriak diren faktore berberak ebaluatuko dira, jarduera, gaitasun eta betetze profesionalari buruzko aldeak izan ezik. Era berean, beren ebaluazioak zerbitzu edo unitaterako ezarritako helburuak betetzea ere barne hartuko du.

b) Kudeaketa lanpostuak betetzen dituzten bitartean, horiei esleitutako ordainsariak jasoko dituzte, helburuak betetzeagatik zehazten diren zenbatekoak barne, produktibitate aldakorrekiko kontzeptu gisa.

c) Lanpostu horietan emandako denbora lanean emandako urteen barnean zenbatuko da maila ezberdinetan sartzeko.

**Bigarrena.-** Egoera bereziak.

Egoerak sei hilabete baino gehiago irauten badu, senideak zaintzeko eszedentzian dauden, erakundeak eskatuta emandako prestakuntzarako baimena duten edo euskaraz ikasteko liberatu diren edo antzeko egoeretan dauden profesionalei beren unitate edo zerbitzuko antzintasun talde beraren barneko profesionalek eskuratu duten batez besteko puntuazioa esleituko zaie jarduera, gaitasun eta betetze profesionalari eta erakundearekiko konpromisoari buruzko faktoreen puntuazio gisa, egoera horretan dauden bitartean.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lehenengoa.-** Garapen profesionaleko sistemaren mailakako aplikazioa.

Arau honetan ezarritako garapen profesionaleko sistema mailaka ezarritako da, hiru deialdiren bidez:

a) Lehenengo deialdian, I. eta II. mailak deituko dira deialdia egiten den egunean lanean 16 urte, gutxienez, eman duten profesionalentzat, eta ondorio ekonomikoak 2007ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

b) Bigarren deialdian, I. eta II. mailak deituko dira gainerako profesionalentzat, eta ondorio ekonomikoak 2008ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

c) Hirugarren deialdian, maila guztiak deituko dira 4. artikuluko baldintza guztiak betetzen dituzten profesional guztientzat, baita aurretik ebaluatutakoak ere, eta

## DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.-** Compatibilidad del desempeño de cargos de gestión y el modelo de desarrollo profesional.

Los y las profesionales que ocupen cargos de gestión, que supongan responsabilidad sobre equipos de personas o sobre áreas específicas, durante el tiempo que desempeñen dichos puestos, podrán solicitar la evaluación al objeto de acreditar el nivel que puedan obtener, con las siguientes especificidades:

a) Serán evaluables los mismos factores que para el resto de profesionales de su servicio o unidad, salvo en los aspectos relativos a la actividad, competencia y desempeño profesional, cuya evaluación incluirá igualmente el cumplimiento de los objetivos fijados para el servicio o unidad.

b) Durante el tiempo que permanezcan en el desempeño del cargo de gestión percibirán las retribuciones asignadas al mismo, incluido en concepto de productividad variable los importes que se determinen por cumplimiento de objetivos.

c) El tiempo durante el cual se hayan ocupado los mencionados cargos se contabilizará en el cómputo de años de permanencia para acceder a los diferentes niveles.

**Segunda.-** Situaciones especiales.

A los profesionales en excedencia para el cuidado de familiares, permiso para la formación concedido a instancia de la organización o liberados para el estudio de euskera, u otras situaciones asimilables, siempre que la duración de la situación sea superior a seis meses, se les asignará como puntuación de los factores actividad, competencia y desempeño profesional e implicación y compromiso con la organización durante el período en que permanezca en dicha situación, la puntuación media obtenida por los profesionales de su unidad o servicio dentro de su grupo de antigüedad.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.-** Aplicación paulatina del sistema de desarrollo profesional.

El sistema de desarrollo profesional previsto en la presente norma se implantará de forma paulatina mediante tres convocatorias:

a) En la primera convocatoria, se convocarán los niveles I y II para profesionales con al menos 16 años de servicios prestados a la fecha de la convocatoria, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2007.

b) En la segunda convocatoria, se convocarán los niveles I y II para el resto de profesionales, con efectos económicos de 1 de enero de 2008.

c) En la tercera convocatoria, se convocarán todos los niveles para la totalidad de los profesionales que reúnan los requisitos del artículo 4, incluyendo los pre-

ondorio ekonomikoak 2008ko urtarrilaren 1etik hasiko dira.

Ezarpen-aldian, aurkeztutako espedientea baliozkoa izango da ondoko ebaluazioetarako, nahiz eta deialdien artean igaro den denboran eskuratu diren merituak aurkeztu ahal izango diren.

**Bigarrena.-** Ebaluatzeko irizpideak ezarpen-aldian.

Kasu guztietan, dagokion ebaluazioa gainditu behar da, eskatzailearen ibilbide profesional osoa maila bakoitzean aplikatu daitezkeen aldeetan ebaluatuko dela, hurrengo ataletan biltzen diren zehazpenei jarraiki:

a) Fase honetan eta bakar-bakarrik I. eta II. mailetarako, ez da beharrezkoa izango faktoreen bloke bakoitzean 8. artikuluan jasotako gutxieneko puntuazioa lortzea eta nahikoa izango da eskuratutako puntuazioen batura eska daitezkeen gutxieneko puntuazio orokorra baino handiagoa izatea.

b) I. eta II. mailetarako ezarpen-aldian eta etengabeko prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapen eta ikerkuntzaren faktoreak baloratzeko, profesionalak hautatu ahal izango du 8. artikuluan ezarritako ebaluazio arrunta edo bere antzintasunaren arabera puntuazio osagarria aplikatzea.

c) I. eta II. mailetarako antzintasunaren faktore zuzentzailea hautatzekotan, etengabeko prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapen, eta ikerkuntzaren faktoreen ebaluazioarengatik eskuratutako puntuazioaren eta antzintasunarengatik puntuazio osagarriaren batura ezin izango da 35 puntutik gorakoa izan.

d) 4. artikuluan ezarritako irizpideen arabera baloratu diren antzintasun-urteengatik puntuazio osagarria ondokoa izango da:

|                    |                            |
|--------------------|----------------------------|
| 5 urte = 7 puntu   | 6 urte = 8 puntu           |
| 7 urte = 9 puntu   | 8 urte = 10 puntu          |
| 9 urte = 11 puntu  | 10 urte = 12 puntu         |
| 11 urte = 13 puntu | 12 urte = 14 puntu         |
| 13 urte = 15 puntu | 14 urte = 16 puntu         |
| 15 urte = 17 puntu | 16 urte = 18 puntu         |
| 17 urte = 19 puntu | 18 urte = 20 puntu         |
| 19 urte = 21 puntu | 20 urte = 22 puntu         |
| 21 urte = 23 puntu | 22 urte = 24 puntu         |
| 23 urte = 25 puntu | 24 urte = 26 puntu         |
| 25 urte = 27 puntu | 26 urte = 28 puntu         |
| 27 urte = 29 puntu | 28 urte = 30 puntu         |
| 29 urte = 31 puntu | 30 urte = 32 puntu         |
| 31 urte = 33 puntu | 32 urte = 34 puntu         |
| 33 urte = 35 puntu | 33 urtetik gora = 35 puntu |

e) Nolanahi ere, ebaluazioa jasotzen duen pertsonak eskabidea bete behar du, ebaluazioaren fase arruntean eska daitezkeen curriculumaren aldeak adierazita.

viamente evaluados, con efectos económicos desde el 1 de enero de 2008.

Durante la fase de implantación, el expediente presentado será válido para las sucesivas evaluaciones, si bien podrán aportarse méritos del tiempo transcurrido entre convocatorias.

**Segunda.-** Criterios de evaluación en la fase de implantación.

En todos los casos, deberá superarse la correspondiente evaluación, evaluándose toda la historia profesional del solicitante en aquellos aspectos aplicables en cada nivel, con las especificidades que se recogen en los siguientes apartados:

a) En esta fase y exclusivamente para los niveles I y II, no será necesario alcanzar, en cada uno de los bloques de los factores, la puntuación mínima recogida en el artículo 8, bastando con que la suma de las puntuaciones obtenida supere la puntuación mínima global exigible.

b) En la fase de implantación, para los niveles I y II, el profesional podrá optar por la evaluación ordinaria prevista en el artículo 8 o por la aplicación de una puntuación adicional en función de su antigüedad para la valoración de los factores de formación continuada, docencia y difusión del conocimiento e investigación.

c) En el supuesto de que se opte por el factor corrector de la antigüedad para los niveles I y II, la suma conjunta de la puntuación obtenida por la evaluación de los factores de formación continuada, docencia y difusión del conocimiento e investigación más la puntuación adicional por antigüedad no podrá superar los 35 puntos.

d) La puntuación adicional conforme a los años de antigüedad valorados según los criterios fijados en el artículo 4 será la siguiente:

|                     |                            |
|---------------------|----------------------------|
| 5 años = 7 puntos   | 6 años = 8 puntos          |
| 7 años = 9 puntos   | 8 años = 10 puntos         |
| 9 años = 11 puntos  | 10 años = 12 puntos        |
| 11 años = 13 puntos | 12 años = 14 puntos        |
| 13 años = 15 puntos | 14 años = 16 puntos        |
| 15 años = 17 puntos | 16 años = 18 puntos        |
| 17 años = 19 puntos | 18 años = 20 puntos        |
| 19 años = 21 puntos | 20 años = 22 puntos        |
| 21 años = 23 puntos | 22 años = 24 puntos        |
| 23 años = 25 puntos | 24 años = 26 puntos        |
| 25 años = 27 puntos | 26 años = 28 puntos        |
| 27 años = 29 puntos | 28 años = 30 puntos        |
| 29 años = 31 puntos | 30 años = 32 puntos        |
| 31 años = 33 puntos | 32 años = 34 puntos        |
| 33 años = 35 puntos | Más de 33 años = 35 puntos |

e) En todo caso, el evaluado deberá cumplimentar la solicitud incluyendo los aspectos curriculares exigibles en la fase ordinaria de evaluación.

**Hirugarrena.-** Kudeaketako lanpostuen ebaluazioa ezarpen-aldian.

Ezarpen-aldian pertsona taldeen edo arlo espezifikoen gaineko erantzukizuna dakarten kudeaketa lanpostuak betetzen dituzten profesionalek hautatu ahal izango dute aintzatesten zaien mailaren arabera garapen profesionalaren osagarria jasotzea ala helburuak beteagatik zehazten diren zenbatekoak kobratzea. Aukera hori baliozkoa izango da kudeaketako lanpostua gauzatzen den bitartean, eta ez da inola ere jasoko bi kontzeptuengatik.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 200 abenduaren 26an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

7376

249/2007 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Kanpo Harremanetarako ordezkaria kargutik kentzea xedatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18. artikuluko j) idatz-zatian, 26. artikuluko 6. paragrafoan eta 29. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lehendakariaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abenduaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.-** José María Muñoa Ganuza jauna, erretiratzen delako, Kanpo Harremanetarako ordekarik kargutik kentzea, eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

**Tercera.-** Evaluación de cargos de gestión durante la fase de implantación.

Durante la fase de implantación, los y las profesionales que ocupen cargos de gestión que supongan responsabilidad sobre equipos de personas o sobre áreas específicas, podrán optar entre el percibo del complemento de desarrollo profesional en función del nivel que les sea reconocido o por el abono de los importes que se determinen por el cumplimiento de objetivos. Esta opción será válida durante todo el período en que desempeñe el cargo de gestión y en ningún caso podrá ser retribuido por ambos conceptos.

DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2007.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

7376

DECRETO 249/2007, de 26 de diciembre, por el que se dispone el cese del Comisionado para las Relaciones Exteriores.

De conformidad con lo dispuesto en los artículos 18, apartado j), 26, apartado 6, y 29 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, a propuesta del Lehendakari, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de diciembre de 2007,

DISPONGO:

**Artículo 1.-** Cesar, por jubilación, al Comisionado para las Relaciones Exteriores, D. José María Muñoa Ganuza, agradeciéndole los servicios prestados.